

PROBLEMAK 9 ETA 10

- Mekano batek 124 pieza ditu. Zenbat pieza izango dituzte halako 2 mekanok?

pieza izango dituzte.

- Marinek koloretako 3 uztairen bidez egiten ditu belarritakoak. Zenbat uztai beharko ditu 42 belarritako berdin egiteko?

uztai beharko ditu.

- Anek 8 urte ditu. Xabierrek, berriz, Anek baino bi aldiz urte gehiago ditu. Zenbat urte ditu Xabierrek?

urte ditu Xabierrek

- Jatetxe batean, budinak eta izozkiak dituzte: 32 budin eta hiru aldiz izozki gehiago budin baino. Zenbat izozki dituzte jatetxean?

izozki dituzte jatetxean

- Izero eta Amaia bi herritan bizi dira. Izarorenak 19.445 biztanle ditu, eta Amaiazenak, Izaroren herriak baino 4.056 biztanle gutxiago. Zenbat biztanle ditu Amaiazen herriak?

biztanle ditu Amaiazen herriak.

- Aitor kamioilaria da eta hiru eguneko ibilbide bat egin du. Lehen egunean, 270 kilometro egin zituen; bigarrenetan, 315; eta hirugarrenean, 286. Zenbat kilometro egin ditu guztira?

kilometro egin ditu guztira.

- Kooperatiba bateko nekazariak 5.780 kilo patata bildu dituzte. Atzo, 1.750 kilo saldu zituzten, eta gaur, 2.430 kilo. Zenbat kilo dituzte oraindik saltzeko?

kilo dituzte oraindik saltzeko.

- Iratik 78 €-ko zapatila batzuk erosi nahi ditu. Aitak 35 € eman dizkio, eta amak, 50 €. Zenbat diru geratuko zaio zapatilak erosi ondoren?

€ geratu zaio zapatilak erosi ondoren.

- Tren batek 3 bagoi ditu, eta 5 kutxa daude bagoi bakoitzean. Hurrengo geltokian, beste bagoi bat gehitu diote; 4 kutxa ditu horrek ere. Zenbat kutxa daramatza orain trenak?

kutxa daramatza trenak.

- Amagoiak 2 jaka erosi eta 100 € eman ditu ordaintzeko. Jaka bakoitzak 38 € balio badu, zenbat diru jasoko du bueltan Amagoiak?

€ jasoko du bueltan Amagoiak.